

# LA MONTAÑA DESNUDA


## Primera ascensión invernal al Nanga Parbat

### ALEX TXIKON ABENDUAREN 4AN HELDUKO DA BERMEORA, NANGA PARBATERA NEGUAN EGINDAKO IGOERA ETA GAILURRA KONTATZEN DITUEN 'MENDI BILUZIA' FILMAREKIN

- Film luzea (70 minutu inguru) Txikonek berak ekoiztu eta zuzendu du, eta 2016ko otsailaren 26an Nanga Parbat (8.125m; Karakorum-eko mendikatean, Asian) egin zuen gailurra kontatzen du. Ordura arte neguan inoiz lortu gabeko balentria
- Mendizale bizkaitarrak konfinamenduan landu duen oso proiektu pertsonala da, izenburu bera daraman eta lorpena xehetasun handiagoarekin kontatzen duen liburuarekin batera
- Emanaldi bikoitza egingo da Bermeoko Nestor Basterretxea aretoan: 17:00etan (gaztelaniaz) eta 19:00etan (euskaraz). Sarrerak salgai Gizarte eta Kultur Etxean eta [www.kutxabank.eus](http://www.kutxabank.eus) webgunean

**Bilbon, 2020ko azaroaren 30ean.-** 2016ko otsailaren 26an Alex Txikon mendizale bizkaitarra Nanga Parbateko tontorrera heldu zen, neguan, historian lehen aldiz. COVID-19ak eragindako konfinamenduan balentria hori filma bilakatu da, eta abenduaren 4an aurkeztuko da Bermeon. Emanaldi bikoitza egingo da Nestor Basterretxea aretoan: 17:00etan (gaztelaniaz) eta 19:00etan (euskaraz). Sarrerak salgai Gizarte eta Kultur Etxean eta [www.kutxabank.eus](http://www.kutxabank.eus) webgunean. Alex Txikonek berak aurkeztuko du proiektzioa eta ikusleek izan ditzaketen galderak erantzungo ditu.

Filmak, Txikonek berak jasotako eta orain arte ikusi gabeko irudiak ditu, eta baita Red Bull Media Housek proiektuari emandako aireko eszena ikusgarriak ere. 70 minutu baino pixka bat gehiagoan, ikus-entzuleek neguko espedizio baten funtsean eta gogortasunean murgiltzeko eta tontorrera heltzearen, baina, batez ere, oinarrizko kanpalekura itzultzearen, garrantzia



# LA MONTAÑA DESNUDA

## Primera ascensión invernal al Nanga Parbat

ulertzeko aukera izango dute. Izan ere, mendizale bizkaitarrak esaten duen moduan, “gailurra, ekipoko gainerako kideekin oinarritzko kanpalekura itzultzen zarenean lortzen duzu”.

Filmaren hurrengo emanaldiak Alex Txikonen Sare Soziales eta [www.alextxikon.com](http://www.alextxikon.com) webgunearen bitartez jakinaraziko dira.

### Liburua

230 orri, Txikonek berak eskuz eta bere letrarekin paperean idatzitakoak, Sua Argialetxearen eskutik argia ikusiko dutenak. Irakurlea mendi magalera eramango duten 90 argazki baino gehiago dituen oso liburu berezia.

Txikonek lehen pertsonan kontatutako liburua, Tom Ballarden eta Daniele Nardiren erreskatearekin hasten da. 2019ko neguan izan zen, eta Txikonek erreskate lanetan hartu zuen parte, K2ko oinarritzko kanpalekutik Nanga Parbatera joanda. Hortik aurrera, horrelako espedizio bat neguan egiteak dituen xehetasunak, sentimenduak eta zailtasunak kontatzen ditu Txikonek.

Liburua Elkar liburu-dendetan dago salgai.

### COVID19

Filmaren proiektzio guztietan indarrean dauden osasun eta segurtasun neurriak zorrotz beteko dira. Gainera, Alex Txikonek espero du hartutako konpromiso guztiak betetzea eta bira bere osotasunean egitea.

### Informazio gehiago eta elkarrizketak:

Ane Mendibe

BIOK Comunicación

636 878 248/ [mendibe@biokcomunicacion.com](mailto:mendibe@biokcomunicacion.com)

